



Azpeitiko Udala

**XI.ERANSKINA: ENERGIA-ERAGINKORTASUNA SUSTATZEKO
PROGRAMA
DIRULAGUNTZA LERROA:
BIRKARGA PUNTUAK ENPRESA PRIBATUEN PARKING PRIBATUETAN
INSTALATZEKO**

<i>ESKUMEN ARLOAK</i>	<i>HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA</i>
Sektore hartzaileak	Azpeitiko enpresa pribatuak
Helburu estrategikoa	Energia-eredu jasangarri baterako trantsizioa bultzatzea.
Helburuak	Apirilaren 7ko 2/2016 Toki Erakundeei buruzko legearen 17.1.8) artikulua arabera, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte, besteak beste, honako eremu hauetan: "Ingurumenaren antolamendu osagarria, sustapena, kudeaketa, defentsa eta babesa, eta garapen jasangarria, hiriguneetako kutsadura akustiko, argi eta atmosferikoaren aurkako babesa barne". Eskumen horien baitan, laguntza hauen bidez herriko enpresa pribatuen aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu kopurua handitu nahi da, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeko 31.artikulua jarraituta.
Lortu nahi diren ondorioak	Erregai fosilen mendekoak ez diren energiak erabiltzen dituzten ibilgailuen erabilera sustatu eta zabaltzea. Garraio sistemaren kanpo eragileak murriztea: BEG Emisioak, kutsatzaile atmosferikoak eta istripu tasa murriztu. Teknologia berriak barneratzea mugikortasunaren kudeaketan.
Egikaritze epea	2025
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Ibilgailu elektrikoek kargarako hamar puntu.
Ekintza Plana	Lehia: oinarriak eta aurrekontua onartuta, organo eskudunak egingo du deialdia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta BDNS-n argitaratuta laguntzen oinarri arautzaileen arabera. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, dagokion sailean izapidetuko da espedientea, eta dagokion informazio-batzordeak proposatuko du. Dirulaguntza-lerro honetara bideratutako birkarga puntuak erakunde onuradunen artean banatuko dira, ebazpen-proposamenean ezarritakoaren arabera, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.
Berdintasuna lortzeko jarduerak	Ordenantza arautzailearen zioen azalpenean printzipio orokorrak jasotzen dira, besteak beste, botere publikoen erantzukizuna, berdintasuna eta unibertsaltasuna, prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa
Jarraipena eta ebaluazioa	Laguntza-eskaerarekin batera, erakunde onuradunak ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazi beharko du, beharrezko egiaztagiria aurkeztuta. Adierazleak: birkarga puntuen instalazio eta legeztatze agiriak; birkarga puntuen erabiltzaileen eta horien kontsumo datuak; energia efizientzia agiriak

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusitakoa</i>
1.0900.212.172.10.01 Ibilgailu elektrikoek birkarga 1.0201.601.153.30.01 Herri ekipamendua	Azpeitiko enpresa pribatuak	Ibilgailu elektrikoek kargatze puntuak ematea	48.192,12€	Lehia	